








El último adiós y el homenaje tributado en el Velódromo en el primer aniversario de su muerte. Abajo, junto al lehendakari Agirre. ARCHIVO

# Hamabost urte

Jose Luis ALVAREZ ENPARANTZA, TXILLARDEGI

HAMABOST, bai; eta atzo hil zela dirudi. Nahiz, egia esan, beraren heriotzatik hona, Euskal Herriko egoera errotik aldatua izan.

Zergatik ni mintzatuko urteurren honetan?

Orain dela 40 urte ezagutu nuen nik Telesforo, Donibaneko «Mende Berri» etxean. Eta etxe hartantxe izan nintzan hamaika aldiz, Belgikara joan aurretik eta ondoren.

«Anai Artea» sortu zuenean hasi nintzen, halere 1970. inguruan, lankide, borrokakide eta adiskide izaten. ETAko gudariek babesleku eta laguntza merezi zuten eta, instituzio autonomikoen kontra paratuz, Telesforok Aita Lartzabal ipartar apaiz famatuaren eskutik, bihotza eta etxea zabaldu zizkien. Argala, Iturbe, Peixoto, horretara egin zituen bere anaia.

Gero gose-grebak etorri ziren; eta Telesforok bat egin zuen etarrekin, bihotz-eritasunari kasorik ez eginez. Eta, ondorioz, sei hilabete pasa genituen elkarrekin, Nogaron, Gascoña zaharrean; buruz buru, sekula hotzaldirik ezagutu ez zuen adiskidetasunean.

Horretan funtsaturik esan dezaket segurki, Telesforok bat egin zuela gudariekin, ideologi desberdintasun guztien gainetik. Eta «politika» alorrean sartu zenean ere (diputatu gisa, adibidez), uzkur egon zela «politika» esan ohi denari buruz.

Hain zuzen ere, herrien jaiotza eta pertsonen jaiotza alderatu ohi zituen maiz: hauek eta haiek oinazean oratuak. «Odola dator» esaten zuen hil baino lehenagoko hilabeteetan. Eta «Gudarien egiñak» poema liburuan esandakoak errepikatzen.

Umore beltza da Telesforo aretoan bakar bakarrik utzi zituen alderdikideek, orain «Lepoan hartu eta segi aurrera» kantatzea... Zer gertatu zen Beyris-en?. Zergatik? Zer ez zuten esan eta idatzi bergararraren aurka?

Telesforo abertzalea, euskaltzalea, borrokalarien aldeko amorratua zen. Hauxe da egia borobila. Horregatik hurbildu zen ETAra eta HBra. Eta inork baino hobeki dakite hau Villa Granadako jauntxoek. Eta ongi dakite ez zela erratu.

## LAS FRASES DE TELESFORO

*Sólo repetiré que la paz en la península pasa necesariamente por el reconocimiento de nuestra soberanía nacional y el derecho de nuestra patria a su autodeterminación.*

*Lo que aquí se necesita es agallas, audacia y corazón. 150 años están ahí para demostrar que el problema vasco no se resuelve empuñando el látigo con mayor fuerza y aumentando las fuerzas de ocupación. En una palabra, que hay que hablar de soberanía a soberanía con ánimo sincero de llegar a una solución fraternal y constructiva por mutua y libre voluntad y no por la fuerza e imposición.*

*Exigen el acatamiento debido a la Constitución española los mismos que llamaron a los extranjeros para derribarla a cañonazos; nos ofrecen generosamente la nacionalidad quienes nos niegan ferozmente la condición de nación y nos llaman criminales por tomar las armas en defensa de nuestra patria los que obligan a nuestra juventud a pasarse catorce meses de su vida dedicados exclusivamente a aprender a matar por defender... la de ellos. Y se escandalizan del impuesto revolucionario los que se llevan de este país, todos los años, decenas de miles de millones... que, como las golondrinas de Bécquer, ésas no volverán.*

*No ha sido ETA la que ha engendrado violencia. Ha sido la violencia la que ha engendrado ETA. No fue su manantial. Ha sido su fruto. ETA nació en un charco de sangre. Pero esa sangre no ha sido vertida por ETA.*

*Resulta ridículo e indignante oír hablar de que Nafarroa ya vendrá, ya se incorporará, ya se sumará a las instituciones vascongadas. Nafarroa no tiene por qué venir a ninguna parte ni incorporarse a nada ni sumarse a nadie. A Nafarroa le corresponde estar y ser (Egon eta izan) Nafarroa es Nafarroa.*